

**EROSKIren bezeroek elkartasuna erakusten dute Eguberrietan**

**EROSKI-REN ELKARTASUN IZARREK 50.000 EURO  
BILDU DITUZTE**

- Ateratako dirua osorik joango da errefuxiatuentzat (ACNUR), haurrentzat (UNICEF) eta adinduentzat; EROSKI Fundazioak adinduen kolektiboarekin zerikusia duten elkarten ideietatik abiatuta landuko du proiektu hori, eta elkarteak berak arduratuko dira hura ikuskatzeaz
- Eguberrietako egun guztietan, kontsumitzaileek aukera izango dute gabon apaingarriak erosteko bi eurotxotan

Elorrio, 2017ko abenduaren 15a.- [EROSKI](#)ren *Elkartasun Izarren* kanpainak 50.000 euro bildu ditu dagoeneko, azaroaren 16an martxan jarri zenetik. EROSKI hirugarrenez antolatu du kanpaina hau, honako hauen laguntzarekin: [ACNURen EAEko batzordea](#) (NBEK iheslarientzat duen agentzia) eta [Unicefen](#) Espainiako Batzordea (NBEK Haurrentzat duen agentzia). Ekimen hau indarrean egongo da Eguberrietako egun guztietan, eta kontsumitzaileek bi eurotxotan eskuratu ahalko dute *EROSKIren Elkartasun Izarra* Gabonetako apaingarria, supermerkatu eta hipermerkatu sare osoko ordainlekuetan, baita on line supermerkatuan ere.

*"Aurten ere, bezeroak gure alde irauli dira lehenbiziko egunetatik, eta elkartasun handia erakutsi digute. Eskertu nahi dugu apaingarri hau erosten azaldu duten eskuzabaltasuna, eta badakigu kanpaina amaierara arte jarraituko dutela horretan",* esan du EROSKIren Gizarte Erantzukizuneko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

EROSKIren Bezero Bazkideek erabaki dituzte Eguberrietako elkartasun kanpainaren onuradunak, [www.eroski.es](http://www.eroski.es) webgunean botoa on line emanda. Ekimen hauek irabazi dute prozesuan: haurrentzako laguntza, zeina UNICEFen Espainiako Batzordeak bideratuko baitu, eta errefuxiatuentzako laguntza, ACNURen bitartez. Horretaz gainera, urte honetan, bilduko denaren zati bat adinekoen kolektibokoentzat den proiektu baterako ere izango da; proiektu hori lantzeko, kolektiboarekin erlazionatuta dauden elkarten ideietatik abiatuko da EROSKI Fundazioa, eta elkarteak berak arduratuko dira hura ikuskatzeaz.

Aurreko bi aldietan, kooperatibak eta bezeroek 242.000 euro baino gehiago bildu zituzten Eguberrietako elkartasun apaingarri horiek salduta eta EROSKIren

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



dohaintza gehigarria batuta. Diru horiek hainbat ekimenetarako erabili ziren; besteren artean, hurrei laguntzeko —UNICEFen Espainiako Batzordearen bitartez—, gure adinekoen bizi kalitatea hobetzeko —Adinekoen Lagunak Fundazioaren bitartez— eta errefuxiatuei laguntzeko —ACNURen bitartez—.

Elkartasun Izarrak kanpaina, sorburuan, EROSKIko langile baten tradiziotik dator: hark ohitura izaten zuen Eguberrietako apaingarrietan urteko bizipenik onenak idazteko. "*Gure bezeroak animatu nahi ditugu tradizio horrekin bat egitera eta Eguberri hauetan ospatzeko dauden alderdi on guztiak izarretan idaztera. Gure ustez, oroitzapen on batekin momentu goxoak sor ditzakegu gu bezain modu pribilegiatuan bizi ez direnentza*", esan du EROSKIren Gizarte Erantzukizuneko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)